

Hitzez emakume baserritar elkarteak egoitza du jada

Lau urteko ibilbidearen ostean, «biltzeko eta ekimenak antolatzeko» lokala inauguratu dute kideek Armendigainen

Leire Ventas

«Ilusioz beteriko lau urteren ostean, jada badugu etxea, biltzeko etxea», adierazi zuen Elixabet Manterola Hitzez emakume baserritarren elkarteko lehendakariak Aiako kultur etxean, larunbat eguerdian.

Sortu zenetik lau urte igaro ostean, lokala inauguratu du elkarteak Armendigainen, eta, bide batez, balantzea egin nahi izan du.

Horretarako, elkartearekin zerkusia duten eta izan dutenak gonbidatu zituzten ekimenara. 27 lagun bildu ziren, tartean, elkarteko kideak, Igor Iturain Aiako alkatea, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak, eta beste hainbat eragile.

Iruñe Lauziririkak, Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimitate Laguntzeko Bulegoko teknikariak proiektua deigarria egin zitzaioela gogoratu zuen: «Otso

eme koadrila bat zen, emakume aktiboak, inguru patriarkaletik babesteko sortutakoa».

Elkartea bereizten duena, baina, zera dela uste du Analia Sanchez psikologoak: «Osasuna berreskuratzea helburu sortutako taldea da, etengabeko kexutik euren buruari laguntzeko antolatutako emakumeena».

«Hori da nabarmenezkoa» esanez, bat agertu zen elkarteko kideetako bat ere: «Behar psikologikoak zituen jende batek mundu guztiarentzako irekita dagoen erakunde publikoa sortu dugu.» Mikel Markezek eta Amaia Zubiriak kantuan amaitu zuten saioa.

o ulakosta.hitza.info



Hitzez elkarteko kideak erakundeetako ordezkariekin, Aian. LEIRE VENTAS

Elixabet Manterola • Hitzez elkarteko lehendakaria

«Batzuei komeni zaien ustezko bakeak emakumeei ondoeza sortzen die»

Xabi Aizpurua Ugarte

Goldatu, ongarrria bota, lurra gorritu, hazia erein, jorratu... eta uzta jaso. Lau urtean zehar egindako lanak uzta oparora eman die Hitzez elkartekoei. Euskal Herri mailan emakume baserritarren gaiez arduratzen den elkarte bakarrenetakoa da eta partaideak toki ugariatik gerturatzen dira: Errezil, Albiztur, Itziar, Zumaia, Usurbil... Elixabete Manterola izan da lehendakaria lehenbiziko lau urteotan. Ondo egindako lanak emandako pozarekin, joan den larunbatean utzi zuen postua Manterolak. Aurrerantzean ere uzta oparora izango dela uste du.

Lokal berriak zer ekarriko dio Hitzez elkarteari?

Alde batetik, jendeari arreta personalizatua eta aurrez aurrekoa emango diogu. Hitzaldietan edo taldean hitz egitera ausartzen ez direnak, askotan, bakarka ibiltzen dira laguntza bila eta horiek egoteko tokia izango dugu. Bestalde, zerbitzu gehiago emateko aukera ere emango digu egoitzak: aholkularitza juridikoa, osasun arlokoa... Orain, lehentasunak zeintzuk diren erabaki beharko dugu.

Asmo horiek aurrera ateratzeko zer balia bide dituzte?

Orain arte, den-dena borondatez



LEIRE VENTAS

ko lanaren bidez egin dugu. Are gehiago, hasieran, patrikatik ere jarri behar izan genuen dirua. Ideiak eta jendearen beharrei buruzko informazioa jasotzeko, berri, bilkura guztien amaieran inkestaxo bat pasatzen dugu.

Emakume baserritarren esparru propioa lortzeko lana egin duzue hasieratik. Zein ardatz izan dituzte?

Hasieran, erabat, osasunaren inguruko kontuak landu genituen eta horretarako psikologoa, eriazina eta medikuarekin aritu ginen. Guretzat osasuna oreka *bio-sosziala* da: gorputza, burua eta inguruko gizartea biltzen ditu

bere baitan. Oreka hori lortzeko gai asko lantzea beste erremedioz ere dago. Eskareei erantzuteko zerbitzuak zabaltzen ari gara pixkanaka-pixkanaka eta, orain, genero ikuspegia ere ari gara lantzen ikastaroeekin.

Baserriko emakumeek nolako kezkek dituzte?

Baserriko emakumea menpekotasunean bizi da eta hori hartu behar da abiapuntu gisa. Lanera joaten da emakumea baserrira, langile gisa, baina ez du kontraturik sinatzen, ez daki familia berri horretan zer baldintzatzen egongo den. Bere izenean ez du jabetza-

rik, eta ez daki izango duen ere. 50-60 urteko alargun bat, ingurukoek nahi baldin badute baserrian gelditu daiteke, baina hala ez bada, lege aldetik ezereen loturarik gabe galduta geldituko da beste esanetara.

Eta nola iristen dira egoera horretara?

Emakume askok ez dute ezereen titularitate, gizarte segurantzaren kotizatzeak aukerarik ere ez dute izan, eta ondasunekin ere ez dute eskubiderik. Egoera hori ikusita, arazoari buelta ematen ikasteko hitzaldiak antolatu izan ditugu. Bertan ikasi dugu testamentu eta kontratu aldetik nolako aldaketak egin daitezken, beti ere, baserriko emakumea orain baino babestuago egon dadin.

Egoera horrek ingurukoekiko mendekotasuna sortuko dio emakumeari, ezta?

Noski. Bakearen izenean, aguantatu egiten du emakumeak. «Besteen bakea, emakumearen gaixotasuna da»; hori edozein belaunditako emakume baserritarrek esango dizu. Batzuei komeni zaien ustezko bake horrek, emakumeari ondoeza sortzen dio, hain zuen ere, ezinean dagoelako. Bere lana ez da aintzat hartzen.

Gai hauek belaualdi askotan isilpean egon dira. Orain, arazoak publikoki plazaratzen dituztenean, zein izan

da erreakzioa?

«Garaia zen baten batek hori esateko!», horixe da emakume askoren erreakzioa, sufrimendu asko egon baita isilik. Orain, argi esaten diegu baserrira doazen emakumeei: aldeztu aurretik zehaztu baldintzak, askotan itsu-itsuan joaten baikara dena ondo joango delakoan, eta sarritan kontuak ez dira horrela izaten.

Elkarrekin biltzeak eta arazoak partekatzeak, norbera indartu egiten al du?

Bai horixe. Aurten hasi gara emakumeen jabetzari buruzko ikastarotetan: emakumeok geure buruaren kontzientzia hartzen dugunean, egoeraz jabetuta, indartu egiten gara aurrera egiteko. Orain dela lau urte bost bazkiderekin hasi ginen, eta orain 50 gara.

Larunbatean utzi zenuen elkarteko lehendakari postua. Gustura gelditu al zara egindakoarekin?

Hasieratik erabaki genuen batzordeak txandakakoa izan behar zuela, denok ikasteko eta formatzeko. Ikaragarrizko poza ematen du edukiz betetako etxea mar txan jarrita uzteak; lehia irekita duela gainera: guk kanpora begiratzen eta besteek gure berri jakiteko. Poz handia ematen dit proiektua hain goxo uzteak ondoren datozkeen jarraipena eman diezaioten.

Interesa daukanak nora jo beharko luke?

Telefonoz deitu dezake 689-09 18 41 edo 676-23 88 74 zenbakietara. Posta elektronikoz hitzez@hitzez.net helbidera idatz dezake, eta informazio guztia www.hitzez.net webgunean dago.